

KOSTUEN EGITURA:

Gure kostuetako bat URA izango da. Azkenean ostatu batean normala da uraren gastua; dutxarako, sukaldean erabiltzeko, animalientzako.. eta abar.



ELEKTRIZITATEaren erabilera ere garrantzitsua da eta hori ere izango da gure kostuetako bat. Batez ere gela guztietako argiak mantentzeko, etxeko tresna elektriko guztiak... Elektrizitatea funtsezko kostau izango da. Kostu hau aldakorra izango da zeren eta erabileraren menpe dago

Gure belardiak eta mozteko behar diren tresnerientako GASOILA garrantzitsua da. Gasoilaren erabilpenik gabe ezin direlako martxan erabili. Tresneriaren erabileraren menpe egongo da gastua, aldakorra izango da kostua

ZERGAK kostu handia eragingo dute gure ostatuan. Urtero ordaindu beharko ditugu ostatua aurrera ateratzeko behar diren zerga guztiak. Zergaren kostua finkoa izango da, beti ere gastua berdina izango da eta.

GASA ez da izango kostu handia baina sukaldeko tresneria martxan jartzeko beharrezkoa izango da. Sukaldatzeko garaian dena gasarekin erabiliko dugu. Gastu aldakorra da, erabileraren menpe dago eta.

GANADOA edukiko dugunez, kostu dexentea ekarriko digu aurrera ateratzek. Ganadoak denbora kentzen dute eta batez ere beraiek jaten duten pentsua ordaindu egin beharko da eta baita ere beraiek egualdi txarrarekin egoteko ikuilu txikiaren gatuak. Hilabetero gastu berdina izango da, orudan gastua finkoa izango da.

